

JOSE ANTONIO PAGOLA  
CARLES SUCH HERNÁNDEZ, SCH.P

1

Jesusen  
Gazte  
Taldeak

---



## Marraskia: Estudio SM

© 2016, Jose Antonio Pagola, Carles Such Hernández, SCH.P

© 2016, PPC, Editorial y Distribuidora, S.A.

Impresores, 2

Parque Empresarial Prado del Espino

28660 Boadilla del Monte (Madrid)

ppcedit@ppc-editorial.com

www.ppc-editorial.es

- Liburuko poesia-abestien testua: Pello Esnal eta Dionisio Amundarain.
- Lagunarterako prest den CDaren grabazioa: Karmelo Ezeiza (ez dago salgai).
- Liburua euskaraz: Dionisio Amundarain

ISBN: 978-84-288-3266-3

Lege Gordailua: M 9511-2018

Impreso en la UE / Printed in EU

*Debekatua dago, legeak jasotako salbuespenetan izan ezik, lan honen kopiarik egitea, banaketa burutzea, jendaurrean zabaltzea eta aldaketak egitea jabetza intelektualaren titularren baimenik gabe. Aipatu eskubideen urratzea jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Zigor Kodea, 270 eta hurrengo artikulua). Erreproduzio Eskubideen Espainiar Elkarte (www.cedro.org) da eskubide horien babesaz arduratzen dena.*

# AGURRA

Adiskide maitea:

Erabaki garrantzikoa hartu duzu, beste adiskide batzuekin batean abentura liluragarri bat biziko duzu. Ibilaldi bat egingo duzu, Jesus hobeto ezagutu eta harekin batean zeure bizitzarako bide berri bat aurkitzeko.

Zuri ere gerta dakizuke beste askori gertatua. Batzuetan, «galdurik-edo» sentituko zara. Baina, agian, zure arazoa ez da bidea galdurik zabiltzala. Zerbait kezkarriagoa da. Sinpleki, biderik gabe bizi zara.

Jende asko bizi da gaur egun horrela. Begira ezazu zeure ingurumenera, zenbat jende bizi den ikasten, lanean, planak egiten, harremanen bila... Askok mugitzen dira, baina, egiaz, ez doaz inorantz. Ez dute, ez jomugarik, ez biderik. Egiten dutena, bizitzak arrasta ditzan uztea da.

Nola pozten nauen ikusteak, gazte batzuk hasiak zaretela erreakzionatzen. Ez zaituzte konformatu ondo pasatzearekin. Ez zaituzte aseko edozein gauzak. Zientzia edo teknika bakarrik ez den «zerbait» eskatzen duzue, ideologia edo doktrina erlijioso bat baino «zerbait» gehiago. Bilatzen duzuen, bizitza beste modu batean esperimentatzea da. Baina, nola asmatu?, non dik hasi?

Jesusen Gazte Talde bateko partaide izango zara. Zure gauza beraren bila dabilzan adiskideak aurkituko dituzu zeure taldean. Esperientzia hau bizitzeko ez duzu zertan izan, ez fededun, ez betetzailerik. Aski duzu zeure bizitzarako bide berri baten bila hastea, Jesusengan konfiantza jarritz.

Talde honetan Jesus bizi eta jakin bat ezagutzeko joango zara. Bere ahoan mezu zehatz bat dakarrena: Jainko Aita baten egundoko maitasuna, oraintxetik hasita,

gizon-emakume guztientzat bizitza duinago eta zoriontsuago bat nahi duena. Egitasmo ondo definitu bat duen: mundu gizatarago, zuzenago eta solidarioago bat eraikitzea. Bihotzean jende kuttun bat duen: pobreak eta babesgabeak, bote-retsuek gehien zapalduak eta erlijioak gehien ahaztuak.

Jesusengana hurbiltzen bazara, ez duzu topo egingo erlijio aspergarri horrekin, agian memento honetan bertan behera uzten ari zaren horrekin, baizik eta bide batekin, den-dena era berri batean bizitzeko. Entzun izan duzun guztia baino Jainko gizakoiago eta adiskideago bat agertuko dizu Jesusek. Bizitzeko poza bezain gauza inportante bat sartuko dizu bihotzean: sufritzen dutenekin solidaritatea eta gizarte gizakoiago baten aldeko lana. Duintasunez eta esperantzaz bizitzen erakutsiko dizu.

Adiskide maitea: ez ahaztu bidelagun duzula Jesus. Hark erakarri zaitu Jesusen Gazte Talde honetara. Zure bizitza alda daiteke. Aski duzu zeure fede koskor eta makal hori.

JOSE ANTONIO PAGOLA

# AURKEZPENA

«Jesusen gazte taldeak» delako honek, bakarka nahiz taldean, Jesusengana konbertitzeko ibilbidea egitea du helburu nagusia, Ebanjelioko gauzarik funtsezkoenak era xumean sakonduz. Elkarrekin egin nahi dugu ibilbidea, Ebanjelioa hobeto ezagutzeko, eta geure bizitza Jesusengan, haren mezuan eta mundua hobeago egiteko haren egitasmoan sustraitzeko, errotzeko. Konbentzimendu honetatik jaiok dira talde hauek: «Gaur egun ere Jesusek erantzuten diela jendearen galdera, problema eta premia sakonenei».

Jesusen Gazte Taldeak delako hau, gure fedearen oinarri denarekin topo egiteko proposamena da: Nazaretoko Jesusekin, alegia. Jesusen Taldeak liburuan egindako proposamenaren jarraipena da oraingo hau, baina egokitze aldera urrats bat eginez. Egunero-egunero, belaunaldiak aldi laburragoko aroak eratzten ari dira; hartara, pertsona heldu batentzat (30-35 urtetik aurrera) proposatu dena, urruneko gauza edo arrotz gertatzen zaio, bizi-proposamen askotan, bigarren hamarkadan bizi den bati.

«Jesusen Gazte taldeak» izeneko hau osagarri gisa jaiok da. Ez da gazteekin egin beharreko prozesu edo ibilbide pastoral bat, baizik hartarako baliabide bat gehiago; hartatik, jadanik lantzen ari diren edozein proposamen pastoraletan izan dezake txoko bat edota, are gehiago, proposamen pastoral baten abiapuntu ere izan daiteke. Jesus aurkezteak eta harekiko topaketa pertsonal bat sustatzeak edozein ibilbide aberastu besterik ez du egiten. Gure asmoa ebanjelio-bideak sustatzea edo eragitea da, konbertsio-prozesu pertsonalik sortuko ahal dutenak; hori guztia garatu, gazteen eguneroko bizitzarekin sintonizatuko duten hizkuntzaz, sinboloez eta Ebanjelioarekiko harremanez garatu nahi dugu.

Badakigu ez direla existitzen «gazteak», baizik gazte bakoitza dela bizi dena, pertsona bakoitza: bizi-ibilbide bat eginez, haurtzaroa atzera utzi eta heldutasune-

rantz bideratzen den aro hori bizi behar izaten duena. Uste dugu, proposamen hau hasi, eskolako azken ikasturteetako nerabe edo gaztetxoekin has daitekeela; nagusiki, Unibertsitateko goi-ikasketei, Lanbide Heziketari edo lan-munduari ekin dietenekin.

Lehen proposamen-sail honekin, atalasean kokatu nahi dugu geure burua, zeinetan izaten baitira gazteak, entzuten, galdetzen, hurbiltzen... direnak, baina Jesusi jarraitzeko pausoa egitera iritsi gabe. Ukapen-iragan batetik etorri ohi dira askotan gazte horiek edota, besterik gabe, axola-gabeziako iragan batetik, eta beste zerbaiten bila hasten dira. Ustekeria handia izango litzateke gure proposamen hau «gazte urrunduentzat» dela esatea; izan ere, jende-sail horrek, nagusiki arduragabea (ateoa edo agnostikoa), kasu askotan aurreiritzi-zama handikoa, nekez erantzungo dio hain esplizitua eta formala den gure proposamen honi. Alabaina, uste dugu, bai, topaketa hauek biziko dituzten gazteak bihur daitezkeela dei edo deiadar beste jende urundu horrentzat. Jesusengana iristea esperientzia-bidez gertatzen zaigu, topo egite pertsonalez, eta gaur egun ebanjelizatu, geure bizitza partekatzen dugun neurrian ebanjelizatuko dugu. Geroago proposatuko ditugu topa-keta batzuk ildo berean, baina jadanik ibilbide pastoral jakin bat bizi dutenentzat pentsatuz.

Horregatik, lehen proposamen hau oso onuragarri gerta daiteke Jesusekin topo egitea sustatzeko Batxilergoan edo Lanbide Heziketako erdialdean, edota gaztetalde bati parrokiari hastapena egitera bultzatzean, zein ibilbide eskaini garbi ez dakigunean; baita ere talde askotan gizatasunaren eta balioen urratsa egitean Jesusekin topo egitera eta bere biziarekin iragartzen duen Jainkoaren bila. Jesus proposatzea, edozein delarik ere emaitza, beti izango da ekintza egokia.

Erreparatu diezaiozun geure munduari; gazteak bizi diren mundua bera da; har dezagun mundu hau bizitzea egokitu zaigun lekurik hoberentzat. Bota diezaiozun begiratu baikor eta esperantzazko bat inguratzen gaituen guztiari, geure proposamenak, geure topaketak kokatzeko eremurik hoberentzat hartuz. Ez gara jende xaloki baikorra, ezikusiarrena egiten diegunak hainbat gizon-emakumek, haietako asko haur eta gazte, jasaten dituen sufrimendu, zuzengabekeria eta oinazeri. Alabaina, Jesusen begiratu proposatu nahi dugu, aholkulari handi den harena; daitekeenari begiratzen dio hark, eta ez eragozpenari, lasakatzat, amore-emaitzat edota erlijiotasun gutxikotzat joko gaituzten arriskua eta guzti. Aukera bat egin dugu proposamen hauekin errukiaren alde, ez baita hau guztia gaur egungo gaztearen errealitatera aurreiritzirik gabe hurbiltzea baizik, gazte hura Jesu Kristoren gai bilakatzeko. Zenbat eta urrunagoko, hautsiago edo zaurituago, jarrera hobe topaketa honetarako: «Ez naiz etorri zintzoei dei egitera, baizik bekatariei [...]. Ez dute sanoek sendagile beharra, baizik gaixoeak».

Topaketa bakoitzak errepikatzen den eskema bat du; geroago argituko dena; baina gazte batek (17 eta 25 urte bitartekoa, beste adinak baztertu gabe) egunero aurkituko dituen egoerak bateratu nahi ditu, haietaz elkarrizketa bat ahalbidetu eta Jesusen hitzarekin, sentimenduekin, keinuekin eta gonbitarekin erkatu edo konparatzeko.

Ez da katekistarentzako edo hezitzailearentzako liburua, gazte edo ikaslearentzat laguntzatxo bat eskainiko lukeena; baizik eta proposamen partekatua da. Lagunartean sentitzen direla ala ez, Jesusekin topo egin eta hari jarraitzeko bidea ibilian partekatzen dutenen bidea da. Elkarrekin egingo dugu ibilbidea, bizi-esperientzia eraldatzaile bat sendotzeko: Aitaganako bidea eskaintzen digun Nazaretoko Jesusekin aurrez aurre topo egitea.

Liburu honetan, edozein pertsona gonbidatzeko aukera ematen dugu, edozein duela ere bere jatorria, bere izaera edo erlijioa. Ez da katekesi-liburua, baizik hurbilketa-ibilbide bat da. Izatez, ibilbide partekatu bat izatera animatzen ditugu gazteak, baita hauek bidean lagun izango dituztenak ere edota, besterik gabe, gazteekin ibilbide hau partekatu nahi dutenak.

Prozesu honetan zer gertatuko den ez dugu geure esku; hurbiltzen den eta bihoztera hitz egiten digun pertsona horrekin, Nazaretoko Jesusekin, bakoitzak ezarriko dituen harremanen baita dago guztia. Horregatik, beti izan ohi da azken zati bat, fedea eskatzen duena, batzuetan bazter utz daitekeena, gaztearentzat eragozpen, urruntze eta motibazio-kentzaile gerta daitekeela uste bada. Hor dago idatzia eta proposatua, norbaitek jauzia egin nahi izango duenerako. Arazoa ez da topaketa saihestea; aitzitik, baldin eta hurbilketa egia eta ireki bat egiten bada, Jesusek berak eragingo du bera desiratzea; baina utz dezagun, hori gazte bakoitzak egin dezan.

Jesusen Gazte Talde bezala, ez du jaiotetxe jakinik elizbarruti batean, erakunde edo mugimendu batean; esperientzia bizi dutenen artean sare bat eragin nahi da, sare birtual bat (Sarean harremanak izateko modu-agatik), baina zinezkoa benetan. Sareko baliabideak interesgarri izan daitezke gazte-talde batzuk besteekin harremanetan aritzeko: WhatsApp dela, Facebook dela, Twiter edo e-posta direla.

Azkenik, gustura ikusiko genuke Jesusen Gazte Taldeak edozein eliz eta gizarte errealitateira iritsi direla jakitea, eta inorentzat ez dela izan oztoporik material haue-tara iristeko. Horretarako, liburu solidarioen fondo bat sortuko dugu, proposamen honetaz baliatu nahi izango duten errealitateentzat, eta eskuratzeko eskuartekorik ez dutenentzat. Kasu horretan, erregutzen dizuegu, jar zaitezela gurekin harremanetan aipatu baliabide horietakoren batekin, behar duzuen doan bidal diezazuegun.

Egizue ibilbide on bat eta gaur hasiko diren topaketak izan daitezela bizi- eta esperantza-esperientzia.

JOSE ANTONIO ETA CARLES

# SARRERA

## Liburu bat, hamabi topaketa

Lehen liburu hau proposatzen dugu Jesusengana hurbiltzeko lagungarritzat, ahal duen guztian bere Aita adierazten baitigu. Proposamen honekin, aski axolagabe ageri den gazte baten esperientziaren atalasean, «etxe-atarian», kokatzen gara; halere, delako gazte horrek, «bere adinekoen» testuinguruan ustea aski galdurik eta erakundeei oso gutxi atxikirik bizi den arren, kezkatu eusten dio bilaketa baten eta konformismo-gabezia baten hariari; ez du egiten galdera handirik, baina erasaten edo eragiten dio egunez egun gertatzen zaionak, eta kezkarri gertatzen zaio bere geroa.

Liburuaren lehen zatian bi pertsona arteko topaketa bat gertatzen da: gaztearen eta Jesusen artekoa. Lehen hiru gaiak bere bizi-egoera planteatzen diote gazte horri: bere buruarekin topo egitea Jesusekiko esperientzia lagun duela. Segidako hiruretan, lehen lotura hori ezarria izan delarik, Jesus ageri da, gaztearen arreta piztu dezakeen pertsona bezala.

Liburuaren bigarren zatian, Jesusek agertzen digu: berarentzat baliorik handiena duena, funtsezkoa duena eta bere biziaren zergatia; horrela, gazte horri atea ireki nahi dio, harrigarri eta benetan erakargarri ageri den Jainkoaren esperientzia izateko. Erantzun erlijiosoak sustatzen saiatuko gara: «Bai honekin». Uste dut, «urrats transzendentala» egiteko ahalbidea urratzen duela horrek; eta uste dut, hori ezin duenak egin edo egin nahi ez duenak, Jainkoaz beste irudi bat izango duela aurrerantzean, bere «bizi-bizkar-zorroan» zuena ez bezalako.

Hauek dira hamabi topaketa hauek elkartzten dituen hedeak edo lokarria:



## Nor edo zein da Jesus?

- 1.- Ez beldur izan. Beldurra eta ziurtasunik eza bizitzan [Mt 14,24-33].
- 2.- Zeren bila zabiltzate? Asmo bat neure bizitzarako [Jn 1,35-39].
- 3.- Niri bost axola zait eta! Norbaiti axola natzaio naizena naizelarik [Lk 15,1-7].
- 4.- Norbait jatorra! Esaten duena betetzen duen pertsona! [Lk 43,31-37].
- 5.- Begira jartzeko beste era bat. Aurreiritzirik gabe bizitzeko askatasuna [Mk 2,13-17].
- 6.- Bizitza aitortuz. Emakumearen alde [Jn 8,1-11].

## Zein Jainkoz mintzo zaigu Jesus

- 7.- Gizabidez ezinezkoa. Aita ona [Lk 15,11-32].
- 8.- Pozaren zeinua. Gozaten duen eta pozten den Jainkoa [Lk 15,8-10].
- 9.- Neurtzeko beste era desberdin bat. Jainkoa ona da guztiekin [Mt 20,1-15].
- 10.- Bihotzaz ondo ikusten da. Begientzat ikusezin dena ikusten du Jainkoak [Lk 18,9-14a].
- 11.- Maitasunaren irmotasuna. Jainkoa eskatzaile zorrotz [Mt 25,14-30].
- 12.- Ateoen Jainkoa. Jainkoak den-denak onartzen ditu [Mk 7,24-30].

# Egitura eta oinarrizko eskema «Jesusen Gazte Taldeak» delakoaren proposamen hau bizi ahal izateko

## Gaia

«Gure gizarteko oihiak» delakotik abiatuko gara, murgilduak gauden bizi-esperientzia bat biltzeko. Garrantzizkoa da hasieratik garbi edukitzea, ez gatozela «babes baten bila», baizik eta «geure burua agertzera» gatozela bizi dugunetik abiatuz. Egunero ukitzen gaituzten egoera eta esperientzien aurrez aurre gertatu ohi gara; horregatik, askotan «oihu pertsonal» bihurtzen diren «oihu sozial» horiek hartuko ditugu erdigunetzat. Lehenik eta behin, bizitza dugu jardungai, eta ez hartatik kanpoko diren ideiak edo zertzeladak. Lehen pertsona singularreko proposamena da, baina pluralean bizitzeko bokazioarekin: «gu».

## Honela nago

Proposamenaren lehen unea da: nola gauden ikusetik abiatu. Guztiok izaten dugu geure buruari begira jarri beharra; hein batean, geure nortasuna hazi eta helduta-

sunera eramateko; hein batean, kanpokoak nola erasaten edo eragiten digun, eta nola integratzen dugun azaltzeko. Neure burua besteen bistan jartzea da arazoa: «nola nago»? «zer bizi izan dut»? «zerk kezkatzen nau»? aztertzea goazen gai honi dagokionez. Ez dio axola izandako beste esperientzia batzuetatik abiatu izana; izan ere, kasu askotan Jesusekin topo egiteak gainditu egiten ditu gure iguripenak, gure usteak. Ez dio axola topaketa bakoitzeko proposamenak aldatzeak ere, ezta biziz edo partekatuz goazen errealitateari egokitzeak ere. Ez gara ari ibilbide sistematiko eta gradual bat proposatzen, baizik eta ibilbide pertsonalizatu bat, non proposamen bakoitzak bere zentzua izango baitu bere baitan. Ibilbidea norberak bistaratu eta bizi behar du.

### **Entzuteko prest jarri**

Testuak prestatzen digun tartea edo gunea da, zeinetan gertatuko baita Jesusekin topo egitea. Ni ez bezalako beste batekin izandako edozein hitzorduk bezala, argibide txiki bat eskatzen du honek. Jesusenganako bidea, duela urte askotako testuen bidez egiten dugu; horregatik, ondo ezagutu eta interpretatu behar dira testu horiek. Atal honek, era soilean, giltzak emango dizkigu, aipatu denbora-urruntasun hori gaur egungo topaketa egin ahal izateko eragozpen gerta ez dadin. Batzuetan, irakurtzeko, testuinguruan jartzeko edota, soil-soilik, prestatzeko giltzarriak emango dira. Ez dira izango adierazpen jakintsu eta goi-mailakoak, bai-zik eta eragitea espero dugun topaketa errazteko gaiak emango dira.

### **Topaketa**

Norberak dakarren eta sentitzen duen harira irakurriko dugu testu ebanjelikoa. Eskema osoaren erdigunea da ebanjelioa, eta hartatik sortzen dira, goraka eta beheraka, gainerako atal guztiak. Horregatik, merezi du testua zaindu eta erdigunetzat hartzea, dagokion neurrian. Bera da aukeragarria ez den eta alde batera uztekoa ez den atal bakarra.

### **Elkarrizketa**

Testua nork bere aldetik irakurri ondoren, geure lehen galderak egingo dizkiogu, sortzen zaizkigunak. Irakurri dugunaren aurrean ditugun geure duda-mudak, ezin-ulertzeak, ukoak, adostasun-eza... planteatzeko ordua da. Zati honi emandako izena

ez da sinbolikoa, baizik erreal; egiazko elkarrizketa sustatu nahi dugu. Hitz batzuen eta errealitate jakin batzuen bidez ari zaigu hizketan Jesus, zer sortzen zaidan niri esateko. Nola egiten ditut hitz hauek neure? Egungo zein esperientzia eta errealitatean ukitzen naute, erasaten edo eragiten didate? Zer planteatuko nioke gaur Jesusi? Zer planteatzen dit Jesusek niri?... Edozein giza elkarrizketa bezala, suma genezake nola gauzatuko den, baina edozein aurreikuspen gaindituko duen ezustekoa izango da beti; baita hemen adierazten ditugunak ere. Utz diezaigun bizitzari nagusitzen, eta ez eskemari.

## **Besteen esperientzia**

Irakur dezagun J. A. Pagolaren iruzkina (komentarioa); Jesus «ezagutzen duen» pertsona da, eta Jesusez izan duen esperientzia kontatzen digu, ea laguntzen digun. Kontua ez da maisu-hitz batzuk hartzea, ezta homilia bat ere, ezta katekesi-hitz batzuk ere. Hitz hauek irakurtzera gonbidatzen gaitu, pertsona batek Jesusekin izan duen elkarrizketaren fruitu bezala. Uste bada, topaketa oztopatu dezaketela edota neurri zorrotzegian gidatu edo mugatu dezaketela, utzi daiteke alde batera atal hau. Laguntza bat izan nahi du eta horrela erabili edo hartu behar da testu hau. Dударik gabe, adiskideak laguntza on izaten dira beti jendea ezagutzeko. Horixe da atal honek proposatzen diguna: Jesusen adiskide baten elkarrizketa.

## **Nire esperientzia**

Eredutzat proposatzen ditugun galdera batzuetatik abiatuz edota norberak «Elkarrizketa» atalean egin dituenetara itzuliz, zehazten joango gara, geure errealitatea argituz, norberaren egoeran eta mementoan Jesusekin egindako topaketa haragituz. Une egokia da arreta eskaintzeko zein erantzun sortzen diren, zein bide zehatz etortzen diren burura jarduera edo planteamendu berrietarako; betiere zorrotz baztertu behar dira teorizazioa, besteei irakatsi nahi izatea, aholku orokorrrak eman nahi izatea. Ez da ere une egokia topaketaz edo proposatutako gaiaz sor litezkeen alderdiez eztabaida teorikoetan hasteko. Azpimarratu behar da, atal hau dela garrantzikoena, «topaketarekin» batean; izan ere, harremanetan jartzen diren bi bizitza eta bi esperientzia uztartzen ditugu: Jesusena eta gutako bakoitzarena. Singularreko lehen pertsonak izan behar du lehentasuna gure hizketan atal honetan.

## **Erabakiak hartu**

Une bat hartuko dugu: zehaztapen operatiboa-edo izango da, aurreko partekatze-bizitzara itzultzea. Pertsona batekin topo egiteak baldintzatu egiten gaitu, arrasto bat ezartzen digu. Horregatik, konklusio batzuk egin beharra proposatzen dugu, erabaki edo konpromiso batzuk hartzeko, bizi izandako esperientziaren argipean. Ebaluatu, kontrastatu ditzakegun proposamenak izango dira, eta ez asmo on huts batzuk. Hasteko, konpromiso pertsonalak izango dira; geroago, taldearen joaneraren arabera, planteza genezake taldearen konpromisoren bat.

Alde honetatik, gizarte sozialak ere presente egon nahi du ibilbide honetan; eskaintzen ari garen ibilbideak gazteak ere presente ikusi nahi ditu pobretuen munduan, halakoengan Jainkoaren aurpegia ikusi eta Erreinua halakoengandik eta halakoekin eraikitzeko. Inguruabar honetan, gizarte-ekintzarako boluntariorza derrigorrezko eskaintza da gazteentzat, solidaritate-erakundeak direla medio, Caritasetik auzoko elkarte txikietaraino. Boluntariorza ez da denbora librearen zati bat betetzeko modu soil bat; baizik eta esperientzia bat faboratzen eta bideratzen ahal du, taldean egoki hausnarturik eta heldurik, bizi-puzlearen puska bihur daitekeena, gazte bakoitzaren bizi-egitasmo propioa era osoan eraikitzen lagundu deza-keena.

## **Adieraz dezagun**

Bukatzeko, egindako topaketa zerbaitekin sinbolizatuko dugu. Batzuetan isilune bat izango da eta barnera itzultze bat; beste batzuetan ospakizun sinboliko bat egitea proposatuko dugu; uneren batean otoitz-esperientziaren bat edo musika-espresioen bat izan daiteke, edota sakramentu jakin bat bizitzea. Kontua, une hau gauza mekani-ko huts ez bihurtzea da; gure topaketaren zati esanguratsu bihurtu behar dugu. «Beste era batean» adierazten eta sinbolizatzen dugun zerbaitekin geldituko gara. Ez gaitezen ahaztu ere, hauek guztiak «proposamenak» direla, talde bakoitzaren egoerari egokitu beharrekoak. Gehiengo batzuen iradokizunak dira, egokigarriago izan daitezen.

## **Eta sareak...**

Gaur egun, edozein topaketa interesgarri edo esanguratsuri sare sozialetan ematen diogu estaldura. Jesusekin egindako topaketa hauek ezagutzera emateko aukera ere proposatu nahi genuke. Horrela, ibilbide hau bizitzen ari zareten gazte guztiekin harremanetan nola ipini ere iradoki dizuegu

Zuen artean jokatzeko, Jesusen Gazte Talde bakoitzak sor lezake WhatsApp-eko talde bat, topaketak gogorarazteko edo topaketa bakoitzean bizitakoarekin zerikusia luketen errealitateak (argazkiak) partekatzeko. Joan-etorri handikoa da honetan beste batzuekin bat sentitzea. Eta topaketa bakoitza partekatuz, ohiko partaide ez direnei edo topaketaren bat huts egin dutenei lotura gabe ez gelditzeko aukera ematen diegu.

## **Elkarrekin hazten joateko**

Azken atal honetan taldearen laguntza pastoralerako ildoak markatu nahi ditugu; planteatzen ari diren gaiez baliatuko gara; guztia, ebanjelioaren eta taldea bera bizitzen ari den esperientziaren eta dinamikaren argipean. Bada prozesu-batasun bat atal honetan, adierazitako eta landutako gaietan barna. Ez dira katekistentzako «mezu», baizik eta oharpenak, taldea bera izan ahal dadin bere ibilbidearen subjektu ebaluatzaile. Ematen dizkiguten adierazpenak begi aurrean ipintzea ispilu ona izan daiteke, taldearen hazkundera non behatua izateko eta bereizmen-arau batzuk eskura izateko.

# AURKIBIDEA

AGURRA, JOSE ANTONIO PAGOLAK .....	05. OR.
AURKEZPENA, JOSE ANTONIOK ETA CARLESEK .....	07. OR.
SARRERA .....	11. OR.
LIBURU BAT, HAMABI TOPAKETA .....	11. OR.
EGITURA ETA OINARRIZKO ESKEMA «JESUSEN GAZTE TALDEAK»	
DELAKOAREN PROPOSAMEN HAUEK BIZI AHAL IZATEKO .....	12. OR.
1.- EZ BELDUR IZAN.	
BELDURRA ETA ZIURTASUNIK EZA BIZITZAN .....	17. OR.
2.- ZEREN BILA ZABILTZATE.	
ASMO BAT NEURE BIZITZARAKO .....	27. OR.
3.- NIRI BOST AXOLA ZAIT ETA!	
NORBAITI AXOLA NATZAI O NAIZENA NAIZELARIK .....	37. OR.
4.-NORBAIT JATORRA!	
ESATEN DUENA BETETZEN DUEN PERTSONA .....	49. OR.
5.- BEGIRA JARTZEKO BESTE ERA BAT.	
AURREIRITZIRIK GABE BIZITZEKO ASKATASUNA .....	59. OR.
6.- BIZITZA AITORTUZ.	
EMAKUMEAREN ALDE .....	71. OR.

7.- GIZABIDEZ EZINEZKOA.	
AITA ONA .....	85. OR.
8.- POZAREN ZEINUA.	
GOZATZEN DUEN ETA POZTEN DEN JAINKOA .....	97. OR.
9.- NEURTZEKO BESTE ERA DESBERDIN BAT.	
JAINKOA ONA DA GUZTIEKIN .....	107. OR.
10.- BIHOTZAZ ONDO IKUSTEN DA.	
BEGIENTZAT IKUSEZIN DENA IKUSTEN DU JAINKOAK .....	119. OR.
11.- MAITASUNAREN IRMOTASUNA.	
JAINKOA ESKATZAILE ZORROTZ .....	131. OR.
12.- ATEOEN JAINKOA.	
JAINKOAK DEN-DENAK ONARTZEN DITU .....	141. OR.
1.- ERANSKINA: JESUSEN GAZTE TALDEAK: POESIA-ABESTIAK .....	151. OR.
2.- ERANSKINA: LITURGIAKO OHIKO ABESTI BATZUK .....	153. OR.